# 8 Armairuan zer ote?

■ Topatu ate bakoitza irekitzeko behar duzun giltza.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Hemen dagoena errenkada honetan dauden beste hiruren baturaren laurdena da. | Kutxa honetakoa bere eskuinean dauden zenbakien arteko diferentzia da. | Kutxa honetan bere eskuinean dagoenaren hiru laurdenak daude. | Kutxa honetan bere azpian dauden bien batura dago. |
| Hemen dagoena bere gainean dagoenaren % 10 da. | Errenkada honetan dauden lau zenbakien batura 100 da. | Hemengo zenbakiak goikoa behekoa baina zenbat aldiz handiago den esaten du. | Kutxa honetan beheko zenbakiaren % 60 ezkutatzen da. |
| Eskuinean dagoena x 9 egiten baduzu lortuko duzu hemengoa. | 5 | Kutxa honetan bere ezkerrean dagoenaren laukoitza dago. | Ezkerrean dauden bi zenbakien arteko biderdura. |
| Goikoaren hiru bostenak daude hemen. | Hemengoa gainekoa baina 7 aldiz handiagoa da. | Hemen dagoena eskuinekoari 100 izateko falta zaiona da. | Kutxa honetan dagoena gainean dagoenaren % 75 da. |
| Hemengoa bere buruarekin biderkatuta 81 zenbakia da. | Hemen dagoena gainean dagoenaren bi bosten da. | Hemen dagoena gainekoarekin batuz gero, eskuinekoa lortzen da. | Kutxan dagoena zutabe honen zenbaki guztien batura da, bere burua izan ezik, noski. |

